DIAGNOSTIKORAKO TXOSTEN-GIDA

KUL-TUR NOR-TASU-NA

nazio
eztabaida
gunea

Beren ingurune natural zein sozialari aurre egin ahal izateko garatzen dute gizataldeek kultura. Talde bakoitzari bizitzak planteatzen dizkion erronkei erantzun ahal izateko baliabideak, kulturak ematen dizkio.

Kulturaren garapenean, baliabide propioen garapenaz gain, komunitate bakoitza beste komunitateek garatutako baliabideez ere jabetzen da, horrela bere kultura aberastuz, beti ere bere errealitateari aurre egin ahal izateko. Baina bai baliabide propioak garatzeko, bai eta besteenaz aberasteko, erabakimena behar du gizatalde orok. Pertsonak bere kultura garatzeko bideak eta aukerak behar dituen bezalaxe, taldeak ere hala behar du. Hori gabe, besteen menpe geratzen da taldea, hots, bere ingurune natural zein sozialari egokiro aurre egin ezinik.

Gure kultura eta hizkuntzaren gaineko zapalkuntzaren adibideak dira bizitzen ari garen gatazka egoeraren adibiderik gordinenetakoak. Izan ere, oraindik ere, gure etxean arrotz izateko sentimendua oso zabala da euskaldunon artean etengabe ukatzen baitzaigu, mila modu desberdinez, gure herri izaera eta ondorioz, gure herritar izaera askatasunez garatzeko aukera. Gure hizkuntz eskubideen urraketaren atzean milaka errealitate mingarri daude, pertsonalak, sakonak, bortxa sortzaileak. Gure kultura eta hizkuntza garatzeko eskubide, eskubide zibila da. Hizkuntz eskubideak giza eskubideak dira eta biak urratuz giza eskubideak eta zibilak urratzen ari dira eta horixe da, besteak beste, gatazkak irauteko aurkitzen duen biderik errazena. Beraz, gure kultura eta hizkuntza garatzeko aukera errealak lortzen ditugun egunean gatazkari lekua irabaziko diogu.

Oharrak:

Euskal kulturaren historia

Historia luzea du euskal kulturak. Milaka urtetan zehar etengabe bilakatuz etorri da, gaur egun ezagutzen dugun honetara iritsi arte. Ibilbide luze horretan herri xeheak garatu du, bereziki, euskal kultura. Inguruko beste herrietan bezalatsu, erromanizazioaren garaitik aurrera herri kultura gisa bilakatu zen, latina eta bere ondorengoak boterearen kulturak ziren bitartean. Aro Modernoaren hasieran berriz, inguruko herri kultura batzuek beren berpizkundea izan zuten, atzean zuten jendarteko botere politiko edota ekonomikoen eskutik. Euskal kulturak ez zuen horrelako aukerarik izan ordea. Arrazoi nagusietako bat, une hartan maila altuago batera eraman zezakeen egitura politikorik eza izan zen, hori bete zezakeena, Nafarroako Erresuma alegia, zapuztu egin baitzuen Espainiako Erresumaren inbasioak. Hain zuzen ere, Europako herri hizkuntzak modernizazioaren eta protestantismoaren eskutik idazten eta Gutenberg-i esker inprimatzen hasiak ziren unean bertan zapuztu ziren euskal kulturaren berpizkunderako aukerak. Inbaditu gabeko Nafarroa Behereko gotorlekutik egindako saioek (Etxepare, Leizarraga, e.a.) ez zuten lortu euskarari “behar zuen tornuia” ematea, eta

Oharrak:

hurrengo mendeetan zehar ere herri klaseen eremuan garatu eta birsortu zen, nagusiki, euskal kultura.

Geroztik kultura eta nortasunen garapenerako izugarri garrantzitsuak izan diren prozesuak eta egiturak garatu dira: nazio estatua lehenik; komunikabide berriak eta kulturaren industria geroago.

Nazio estatuak kulturan izan duen eragina ukaezina da. Lurralde oso bateko herri eta komunitate ezberdinak "nazio kulturaren" mende jartzeko saio eskerga egin du, beti ere estatua zilegiztatuko zuen nazioa eraiki ahal izateko. Horrek eragin du, gurean, erdaren ofizialtasuna (gaztelera zein frantsesa), euskara berriro ere jendarteko bizitzaren arlo garrantzitsu askotatik zokoratuz, eta herri klaseen eremuetara bilduz. Era berean, eskola sistema arrotz baten ezarpena ekarri du, edota kultur ondare propioa babestu ezina. Estatuek ezarritako mugek, bestalde, mendeetan zehar komunitate kultural gisa bilakatu den herri baten zatiketa eragin du, Euskal Herriko iparraldea eta hegoaldea banatuz, kultur bilakaeran ere. Baldintza hauetan, Euskal Herriak ez du baliabide propiorik izan azken mendeetan, bere kultura propioa garatzeko. Horrela estatuetatik zetorkion ezarpen kulturalari erantzuteko zailtasunekin batera, azken mendean etorri diren etorkin kopuru handia kulturalki integratzeko baliabiderik gabe egon da Euskal Herria.

Masa komunikabideen garapenarekin okertu baino ez dira egin lehengo joerak. Izan ere, komunikabide hauek nagusiki estatuak zedarritutako merkatuan jokatzen dutenez eta –telebista eta irratiaren kasuan- estatuak zuzenean kontrolatuak izan direnez, akulturaziorako tresna izugarriak izan dira.

Azken hamarkadetan kultura kontsumorako gai bihurtu izanak, bestalde, eragin handia izan du mundu osoko kulturetan. Kultur industria erraldoiak sortu dira, merkatua kulturaren garapenerako arau bihurtu delarik. Berriro ere, Euskal Herriak ez du eduki tresna ekonomiko eta politiko nahikorik merkatuak kulturan sortutako desorekei aurre egin ahal izateko.

Gauzak honela, bistan da baliabide propioak behar dituela Euskal Herriak historian zehar behin eta berriz kimatu den euskal kultura behingoz loratu, egungo euskal jendarte anitza komunitate gisa osatu, eta bestelako kulturekin dugun kontaktu gero eta handiagotik aberastu ahal izateko.

Baliabide horietatik batzuk herri dinamikatik sortuak dira. Egitura sendoak sortu ditu Euskal Herriak azken hamarkadetan arlo horretan. Baina horiekin batera tresna politikoak ere ezinbestekoak dira kultur garapenaren jabe izateko. Modu partzialean bada ere, baditugu zenbait tresna kultur politika aurrera eramateko: EAEko Autonomia Estatututik edo Nafarroako Hobekuntzaren Legetik datozenak. Baina egungo muga politikoen gainetik dagoen komunitate kulturalari kultur garapena ahalbidetuko dion politikarik ezin da gauzatu, hain zuzen ere muga politikoek hori eragotzi egiten dutelako. Euskarazko telebista euskaldun guztien komunitateari helarazteko zailtasunak, esaterako, egoera

horren adibide xumeak baino ez dira. Bestalde, euskal administrazioek duten eskumen maila txikiegia da merkatuak sortzen dituen joera eta desorekei aurre egiteko, horretarako erabil litezkeen tresna politiko sendoenak estatuen esku baitaude (adibidez hedabideetarako lizentzien banaketak, edukien kuoten sistemak, eta abar). Administrazio autonomikoen eskura daudenak, azkenik, ez dira erabili izan (EAEn) edota hain zuzen euskal komunitate kulturalaren garapenari aurre egiteko erabili dira (Nafarroa Garaian).

Kultur politika propioa gauzatu ahal izateak, gaur egungo munduan, gutxienez honako arloan lan egiteko ahalmena izatea esan nahi du: komunikazioa eta kulturaren industriak, hezkuntza sistema, eta hizkuntzaren arloan. Ikus dezagun, beraz, arlo bakoitzean zertan diren gure baliabide eta eskasiak.

Kulturaniztasunaren auzia

Apunte gisa, gure jendartean gero eta presentzia handiagoa duen auzi bati erreparatu behar zaio: kulturaniztasunarena. Gure inguruko estatu nazioen eredua uniformizatzailea izan da kulturan; estatu bat = nazio bat = kultura bat. Euskal Herrian ereduak porrot egin du, nazio arazoa dela-eta. Baina horren ondorioa ez da kulturaniztasuna edo kulturbitasuna, kultur gatazka baizik, kultura ezberdinen arteko topaketa barik talka bortitza gertatu baita. Gaur egun hainbeste aldarrikatzen den mestizajea badugu euskaldunok, baina inposatua.

Aurrerantzean, kulturaniztasunaren auzia gero eta presenteago egongo da gure jendartean. Nazio estatuak eta merkatuak irekitzen ari diren honetan, edota gizakien zein informazioen jarioa izugarri ugaltzen ari diren honetan, zaila edo ezina izango da estatua-nazioa-kultura ereduari eustea. Bestalde, kulturaniztasuna aldarrikatzen denean, euskal kultura Euskal Herrian bata bestearen ondoan biziko diren kulturen anabasan bat gehiago izateko arriskua ere badago, herri gisa konfiguratzeko indar nahikorik gabe.
Beraz, premiazkoa daukagu eredu berrien inguruko hausnarketa, kulturaniztasuna euskal kulturaren aberasgarri bihur dadin, eta era berean herri gisa garatzeko oinarria eman dezan.

Oharrak:

Oharrak:

Kulturaren industria eta komunikazioaren egiturak

Herri bat ez da eraikitzen historia soilaren gainean. Izaki bizi guztiak bezalaxe, etengabe eraldatzen ari da, behin eta berriz eraikitzen alegia. Ez da egunero zerotik abiatzen, lehendik sortutako oroimen historikoa, jendarteko egiturak (sozialak, politikoak, kulturalak eta mota askotakoak) eta beste zenbait osagai ditu, baina bere bilakaeran egoera berriei aurre egin behar die etengabe. Horretarako funtsezkoa du barne komunikazioa. Kulturarekin azaldu dugun modu berean, komunikazioa ere ezinbestekoa du herri batek bere burua berrezagutzeko, eta bere kide guztiak integratzeko. Zer esanik ez jendarteko aldaketak inoiz baino azkarragoak diren garai honetan.

Herri gisa garatzeko beraz, tresna funtsezkoak dira hedabide edo komunikabideak, bai eta kultura sortu eta hedatzeko tresna guztiak ere. Horregatik, komunikazio eta kultur eremu propioaz mintzatzean, zera azpimarratu nahi dugu: herri bezala iraun eta garatu nahi badugu, geure artean harremanetan jartzeko eremua behar dugu, elkarren berri izateko, jendarteko eztabaidarako, hizkuntza sendotzeko, komunitate zentzua emateko eremua alegia. Eremu hori, gaur egun, hedabideek eta kulturaren industriak osatzen dute, beraiek iritsi ahal baitira Euskal Herria osatzen dugun guztiongana.

Baina Euskal Herria oso urrun dago bere komunikazio eta kultur eremu propioa izatetik. Berriro ere, estatu nazioen ezarpenak komunikazio eremu estatu-nazionalak eratzea ekarri du azken bi mendeetan: hizkuntza bakarra ezarriz komunikazio eremua hizkuntza eremuarekin bateratu da; merkatu bakarra eta administrazio bakarra ezarriz komunikabideen eta kultur industrien sistema “nazionala” bultzatu du; eta abar. Estatuen inguruan hedatutako komunikazio eremuek, hartara, Euskal Herria zatikatu egin dute bi eremu ezberdinetan; eta zati bakoitza eremu handiago batean integratu dute. Zertan da beraz balizko euskal komunikazio eta kultur eremua? Ikus dezagun sektorez sektore.

Kulturaren industria

Kulturaren industria, sorkuntzaren eta hedapenaren iturri bakarra ez den arren, estrategikoa da gaur egun edozein herriren garapenerako. Euskal Herrian kontsumitzen dugun era honetako kulturaren zati handi bat ez dugu geuk sortu: beste nonbaitetik etorria da. Gertaera hau zenbakitan erakusten zaila bada ere, badira zenbait estimazio partzial. Horien arabera, 1992an, EAEko kultur industriek (zehazki liburugintza, diskogintza, prentsa, irratigintza, ikus-entzunezkoen eta publizitategintzako sektoreek) 468.789.441,42 euroko (78 miliardo pezeta) produkzioa izan zuten. Urte bere-

an, EAEko biztanleek (gastu pribatu zein publikoan) 1.165.963.482,51 euro (194 miliardo pezeta) gastatu zituzten kultur produktuetan. Honek zera esan nahi du: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian kulturan xahutzen dugun dirutzaren %60 kanpoan ekoiztutako produktuetara doala. Datu ekonomiko soilari, bertan produzitzen diren produktuen edukiei erreparatu beharko litzaieke: esaterako, noraino horiek birsortzen dituzten kanpoko produkzioen ereduak, eta noraino garatzen dituzten gure ingurukoak.

Era berean, kulturaren industriak duen garrantzia azpimarratzeak ez dizkigu bestelako kultur jarduerak ahaztarazi behar (produkzio ez komertziala, etekin asmo gabeko herri ekimena, e.a.), bereziki industriaz kanpoko kultur jarduerek Euskal Herrian duten indarra ikusita.

Sektorekako begirada arin batez honako laburpena egin genezake:

Liburugintza: Euskal Herria bi merkatu handiren artean dago harrapatuta. Espainian 48.000 liburu argitaratzen dira urtean, eta Frantzian 35.000. Horien artean, 3.500 dira Euskal Herrian argitaratuak (euskaraz erdia).

Diskogintza eta musikagintza: mundu osoan ekoizten diren diskoen %90 lau multinazionalen esku dago, ingelesa hizkuntza nagusia izanik. Sektore honetan, bestalde, bertako taldeen bizitasun handia dago: 2.000 talde, astean 80 emanaldi, eta urtean 130 disko, euskara nagusi izanik bertako produkzioan.

Zinemagintza: aurrekoan bezala, mundu mailako joeren menpe gaude, AEBtako lauzpabost majorrek merkatu ia osoa kontrolatzen baitute. Bestalde, Euskal Herriko zinema aretoetan urtero estreinatzen diren ehunka filmetatik (Hegoaldean soilik 400 inguru) dozena erditik behera dago euskal filmen kopurua.

Publizitategintza: sektore honetan nolabaiteko produkzio propioa badago, bere iragarkiak Euskal Herriko hedabideetara bezala kanpoko hedabideetara bideratzen dituelarik.

Hedabideak: geroago zehaztuko dugunez, eguneroko prentsa idatzian nagusi dira bertan ekoitzitako medioak. Baina gainerakoetan kanpoko medioak nagusitzen dira.

Ondorio nagusi gisa, zera esan ahal dugu: hedabide idatzietako sektorean izan ezik, gainerako kultur industrietan oso egitura ahulak ditugu, eta kanpotik datorkigun produkzioaren mende daude euskal herritarrak: kasu batzuetan, Espainia eta Frantziatik datozkigun kultur ereduak ezartzen zaizkigu. Beste batzuetan, mundu mailako merkatu handienetatik datozkigunak. Bertako produkzioan ere, euskararen presentzia oso urria da (diskogintza eta liburugintza lirateke salbuespen bakarrak)

Oharrak:

Oharrak:

Telebista

Arauketa

Telebistagintzaren arauketa administratiboa maila ezberdinetan banatzen da:

Europako Batasuna: helburu kulturalak (AEBtako nagusitasunaren aurrean produkzio europarra sendotu), politikoak (eremu publiko europarra eta europartasunaren kontzientzia sendotzea) eta ekonomikoak (ikus-entzunezko industria indartzea) aipatuz, kanpora begira nolabaiteko babesa eta barrura begira liberalizazio handia planteatzen duten arauak garatu ditu azken urteetan. Hauek, mugatu egiten dute estatuen ahalmena politika propioa gauzatzeko garaian.

Estatuak: E.B.tik datozen mugak muga, oraindik ahalmen handiak dituzte ikus-entzunezkoen egituraketa antolatzeko: oinarrizko legegintza eta arauketa, bereziki. Telebista lizentzien banaketa, eremu digitalaren antolaketa, telebista lokalen legea, eta abar.

Instituzio autonomikoak: eskumen batzuk badituzte ere (irrati lizentzien esleipena, telebista lokalen arauketa zehatza, edota EAEren kasuan medio propioak sortzeko ahalmen estatutarioa), behar baino gutxiago erabili izan dira (Katalunian ez bezala, adibidez).

Egitura

Bestalde, merkatuaren egiturari erreparatzen badiogu, hiru agente nagusi agertzen dira:

Estatuak, beren kanal propioekin: TVE1 eta TVE2, batetik, eta F2, F3, La 5ÈME eta ARTE, bestetik.

Komunikazio talde handiak: Prisa (Canal Plus), Vocento (Tele 5), Telefónica-Planeta (Antena 3), Espainia mailakoak; Bouyges (TF1), Suez Lyonnaise des Eaux (M6), Canal +, Frantzia mailakoak. Era berean, talde hauek lur azaleko ohiko telebista handietan duten presentziari, kable, satelite edo lur azaleko digitalean dutena gehitu behar zaie. Bestalde, talde hauetako batzuek apustu handia egin dute herri telebisten eremuan, eta egun dauden 50 kanaletatik dozena bat inguru talde handiei lotuta daude; gehienbat, gune estrategikoenetan daudenak (hiriburuak), populazioaren gehiengoarengana iristeko aukerarekin. Aipatzekoak dira bereziki Presa (Canal Bizkaia; Asto Nervión TV eta Canal Gasteiz, Araban; Localia Gipuzkoa, Mendaro TV eta Txingudi TB, Gipuzkoan; Canal 4, Nafarroan), eta Vocento (Alava 7, Bilbovisión, Teledonosti).

Administrazio autonomikoak: EiTB taldea.

Zabalpena

Euskal Herriko iparralderako daturik gabe, Hegoaldeko herrialdeetan honela banatzen dira telebisten audientzia orokorrak:

AUDIENTZIA OROKORRAK

Kanala	%
ETB1	6,2
ETB2	18,3
TVE1	22,1
TVE2	7,1
Tele 5	21,2
Antena 3	16,7
Canal Plus	2,5
Gainerakoak	6,0

Euskararen presentzia

Ezer gutxi dago honetaz argitzeko. Telebista handietan kanal bakarra dago euskaraz igortzen duena (ETB1), berau EAEko lurraldeez gain Iparraldeko lurraldeetara eta Nafarroako zenbait eremutara iristen delarik. Telebista lokaletan oso presentzia urria du: 50 telebistetatik 5 baino ez dira euskarazkoak. Arlo honetan, aparteko garrantzia dauka GoiTBk, eskualde oso batean presentzia handia duen eta herri ekimenetik sortua den komunikazio talde bateko partea baita.

Irratia

Arauketa eta egitura

Irratigintzaren arauketa eta egiturari dagokienez, nahiz eta arlo honetan medioen presentzia handiagoa den, oro har telebistagintzarako azaldu duguna errepika daiteke: batetik eskuduntzen banaketa maila ezberdinetan, zeinak estatuei ahalmen handia ematen baitie (eta instituzio autonomikoen aprobetxamendu txikia dituzten eskumenak erabiltzeko garaian); bestetik Espainiako eta Frantziako taldeen presentzia handia, estatuen presentzia zuzenarekin, instituzio autonomikoen medioekin, eta herri ekimenarekin batera.

Zabalpena

Berriro ere Hegoalderako soilik ditugu datuak:

AUDIENTZIA OROKORRAK

Irratia	%
Euzko Irratia	21,2
Cadena SER	26,1
Radio Nacional de España	13,4
COPE	9,8
Radio Nervión + Gorbea	6,7
Onda Cero	5,5
Cadena 100	5,4
Radio Popular	4,4
Onda Melodía	1,1
Onda 10	0,9
Bestelakoak	5,5

Euskararen presentzia

Telebistaren kasuan bezalaxe, irratien artean euskararen presentzia oso urria da.

Oharrak:

Oharrak:

Prentsa idatzia

Arauketa eta egitura

Prentsa idatziaren kasuan arauketa ez da ikus-entzunezkoen kasuan bezain handia. Honek ez du esan nahi estatuek sektore honen antolaketan parte hartzen ez dutenik, baina beste modu batean egiten dute (publizitatearen erabileratik hasita, egunkariak zuzenean ixteraino, EGIN eta EUSKALDUNON EGUNKARIAren kasuetan bezala).

Egiturari dagokionez, zera esan ahal dugu: Euskal Herriko hegoaldean, bertako komunikazio talde eta enpresak dira nagusiak: Vocento (El Correo eta Diario Vasco) eta Diario de Navarra. Kanpoko taldeek presentzia urriagoa dute bertako merkatuan (El País, El Mundo, e.a.). Euskal Herriko iparraldean ordea, kanpoko enpresak dira nagusi (Sud Ouest). Horiekiko lehian, bertan sortutako beste egunkariak ditugu: Gara, Berria eta Deia.

Azpimarratzekoa da, halaber, Euskal Herriko hegoaldean irakurtzen den prentsa gehientsua Euskal Herrian sortua izateak ez dakarrela, besterik gabe, egunkari hauek euskal komunikazio eremuaren garapena. Batetik, egunkari nagusien beren edukietan ez baitute Euskal Herri osoa islatzen: esaterako, El Correok eta Diario Vascok apenas ematen duten Nafarroari edo Iparraldeari buruzko albisterik. Berdin jokatzen dute Diario de Navarrak eta Diario de Noticiasek Nafarroa Garaiaz kanpoko euskal lurraldeekin, edota Sud-Ouest-ek Hegoaldeko probintziekin. Bestetik, egunkari hauek definizioz probintzialak badira ere, nabarmena da Espainia edota Frantziaren erreferentzialtasuna (El Correok, esaterako, tarte berbera ematen die Bizkaiko zein Espainiako albisteei). Eguneroko prentsarekin batera, era guztietako aldizkariak ere ezin alde batera utzi (informazio orokorrekoak, tematikoak, e.a.). Merkatu zabala dago arlo honetan, eta nabarmena da produkzio gehiena Euskal Herriaz kanpotik datorrela.

Zabalpena

Eguneroko prentsaren irakurleria, Euskaldunon Egunkaria itxi baino lehenago, honela banatzen zen, ehunekoetan, Hegoaldeko herrialdeetan:

IRAKURLEGOA

Egunkaria	%
Euskaldunon Egunkaria	2,2
Deia	4,3
Gara	7,9
El Correo	31,2
El Diario Vasco	20,6
El Diario de Navarra	13,2
Marca	6,5
El Mundo del País Vasco	4,8
Diario de Noticias	3,3
El País del País Vasco	3,9
El Periódico de Alava	0,9
ABC	0,3
As	0,2
Bestelakoak	1,6

Iparraldean Sud Ouest da gehien irakurtzen den egunkaria, ia %90era iristen delarik. Iparraldean bezala, bestalde, Hegoaldean ere egitura bera errepikatzen da: alegia, herrialde bakoitzeko egunkari nagusiak (El Correo Bizkaia eta Araban, Diario Vasco Gipuzkoan eta Diario de Navarra Nafarroan) irakurleen erdiak baino gehiago bereganatzen ditu.

Euskararen presentzia

Bistan da euskarak eguneroko prentsan duen presentzia urria: euskarazko egunkari bakarra (eskualdeetakoak alde batera utzirik), %17aren presentzia Garan, eta %3 Deian. Gainerakoetan, 0aren inguru.

Hemen, aipatzekoak dira herri aldizkariak, azken urteetan izan duten zabalpenagatik, eta euskarazko irakurketaren zabalpenari eman diezaioketen bultzadagatik.

Ondorioak

Begiratu arin honetatik atera dezakegun ondorio nagusia honakoa da: Euskal Herria oso urrun dago bere komunikazio eremu propioa izatetik. Ez bakarrik euskal herritarrak hiru hizkuntzatan aritzen direlako (eremu bakoitzak bere hizkuntza baitu), komunikaziorako ditugun egitura nagusiek hori ahalbidetzen ez dutelako baizik. Horrela, irrati eta telebistan, Espainia edo Frantziako komunikazio eremuak barik Euskal Herrikoa birsor dezaketen medioak, kontuan hartzekoak izan arren, populazioaren laurdenera baino ez dira iristen. Gainerakoa, bi estatuetatik datozen hedabide publiko zein pribatuen esku geratzen da. Prentsa idatzian egitura propio sendoagoak badaude ere, bertako talde handienek Espainia dute merkatu eta erreferente nagusitzat. Egoera honetan, Euskal Herria zatikatuta geratzen da komunikazio eremuari dagokionez, eta Espainia zein Frantziako eremu estatal-nazionaletan txertatuta.

Egoera hau, bestalde, areagotu egingo da etorkizun hurbilean geure eremu propioa antolatzeko baliabiderik eskuratzen ez badugu, kontuan hartuta garatzen ari diren euskarri berriek orain arteko joerak indartu egiten dituztela (telebistaren euskarri berriak kasu).

Azkenik, herri dinamika garrantzitsua dagoela ezin da ahaztu: sortutako egunkarien historiak (Egin eta Deia lehenago, Euskaldunon Egunkaria geroago, Gara eta Berria azkenik), herri irrati eta aldizkariek, telebista lokalek, eskualdeko egunkariek, edota teknologia berrietan (Internet) dagoen bizitasunak hala erakusten dute. Medio handien (bereziki publikoen) eta txikien arteko elkarlana eta sinergia, ordea, eskasak dira.

Ezin aipatu gabe utzi, gure hedabideek azken urteotan pairatu behar izan duten gupidarik gabeko jazarpen politiko-judiziala. Izan ere, alde batetik, Egin, Egin Irratia eta Egunkaria itxi egin dituzte, Euskalerria irratia, Nabarra eta beste hedabide batzuei diru laguntzak kendu egin dizkiete eta beste kasu askotan proiektuak ezin dira abiatu hori gerta ez dadin bereziki legislatu dutelako. Euskal Herritarrek izuga-

Oharrak:

Oharrak:

rrizko dirutzak jarriz sostengu zabala eskaini diegu hedabide desberdinei baina, elkartasunak muga bat izango du eta litekeena da muga hori gertu egotea.

Estatu mailako hedabideetan euskara eta euskal kulturaren presentzia hutsaren hurrengoa da eta maiz, komunikabide horietan Euskal Herriaz eta euskal herritarrez hitz egiten denean mesprezua, gezurra, intoxikazioa eta manipulazioa oso ohikoak izaten dira. Gure asmo legitimoen kontrako kanpaina etengabea da, hala, hizkuntzaren normalizazioaren kontrakoa, nola, herri bezala ditugun eskubideen kontrakoa ere.

Hezkuntza

Jendarte baten kultura sozializatzeko bide eraginkorrenetakoa izanik, kultur egiturei aitortu diegun garrantzia eman behar zaie hezkuntza egiturei. Komunikabideen sistemarekin batera, kultura sortu eta hedatzeko sistema nagusietakoa da hezkuntza. Horregatik, ezinbestekoa du herri bakoitzak bere sistema propioa edukitzea, baldin eta bere burua garatu nahi badu. Are gehiago, globalizazioaren eragin homogeneizatzailea erarik gordinenean pairatzen ari garen honetan. Gurea baino indartsuagoak diren beste herri boteretsuago batzuk dirutzak inbertitzen ari dira globalizazioaren aurreko kalte kulturala txikia izan dadin, nazio estatuaren baliabideak erabiliz. Gurea bezalako estatu gabeko herriak, kulturalki zanpatuak eta linguistikoki txikituak, kosta ala kosta lortu behar ditu bere kultura eta hizkuntza gordetzeko, zaintzeko eta garatzeko ezinbestekoak diren baliabideak eta horretan Hezkuntza Sistema Propioa lehentasun osokoa da.

Ezaugarri orokorrak

Historian zehar eskolarekiko oso tradizio ezberdinak izan dituzten bi estatuen mende egonik, Euskal Herrian ez dago hezkuntza sistema propiorik. Belaunaldi berrien hezkuntza prozesua, bi estatuk diseinatu eta hiru administraziok kudeatutako parametroetan garatzen da. Espainiar eta frantziar hezkuntza sistemak dira gure herrian ezartzen direnak, kasurik onenean, egokitzapen txiki batzuk egiteko aukera dagoela. Horrela, Hegoaldetik Iparraldera alde nabarmenak daude zenbait ezaugarriri erreparatuz gero. Hala eta guztiz ere, ikuspegi orokorra ematen saiatuko gara.

Euskal herritarren ikasketa maila

Euskal Herriko biztanleen ikasketa maila, oro har, Europako Batasuneko batez besteko mailaren azpian dago, Espainiakoa eta Portugalgoa soilik gainditzen dituelarik. Gainerako herrialdeekiko alderik nabarmenena belaunaldi zaharrenetan agertzen da. Konstatazio horrek helduen irakaskuntzaren gaineko hausnarketa eskatzen du, orain arteko plangintzek ez baitute lortu adin batetik gorako euskal herritarren ikasketa maila behar beste areagotzea.

Populazioa osorik hartu beharrean gazteak bakarrik hartzen baditugu kontuan, euskal herritarren eskolatze maila Europako Batasuneko batez bestekoaren gainetik dago. Beraz,

oraingo joerak mantenduz gero lehendik ikasketa mailan zeuden desorekak gainditzeko bidean gaudela ematen du.

Emakumezkoak aurretik

Beste datu interesgarri bat honakoa da, hau ere belaunaldi berrietan gertatua: emakumezkoek aurrea hartu diete gizonezkoei ikasketei dagokienez, derrigorrezko hezkuntzaz kanpoko mailetan (15 urtetik aurrera alegia). 15 urtetik 24 urtera bitarteko ikasleen artean, adibidez, %63 emakumezkoak dira. Honek jokaera ezberdinduak erakusten ditu bi generoen artean (hala ikasketen aurrean nola lanaren aurrean), bai eta joera historikoaren iraulketa ere. Era berean, pentsatzekoa da epe luzera jendarteko eragin handia izan dezakeela.

Etorkinak: Euskal Herritar berriak

Bestalde, eta Euskal Herriko jaiotze tasari soilik erreparatuta ere, etorkinek garrantzi handia izango dute gure populazioaren hazkundean eta, ondorioz, euskal jendarte eta kulturaren garapenean. Gero eta etorkin gehiago datorkigu Euskal Herrira eta, aurreikuspen ezagatik edo, ez zaio heldu euskal herritar berri horien hezkuntza beharrei modu egokian erantzuteari. Orokorrean, ikastetxe bakoitza bere aldetik ari da, tokian tokiko erantzunak asmatzen eta bilatzen, irizpide eta plangintza komunik gabe. Beharrezkoa den erantzun horrek hezkuntzaren ikuspegian eta eskolaren antolaketan eragina izango duten aldaketak eragin behar dituzte: kulturartekotasunaren eta integrazioaren ikuspegiak eskolako estamentu guztiek barneratu eta bideratzea, eskolatze ereduen berrikusketa, hizkuntza plangintza bereziak, ikasle berantiarrek ikasketekin aurrera egin dezaten aukera errealak eskaintzea, hurrengo urteetarako aurreikuspenak.

Sare ezberdinak

Egun Euskal Herrian dauden hezkuntza sistemek, ikastetxeen eraketari dagokionez, bi sare ofizial bereizten dituzte, ikastetxearen titularra den entitate juridikoan oinarrituz: publikoa (ikastetxearen sortzaile eta titularra dagokion administrazioa da) eta pribatua (ikastetxearen sortzaile eta titularra administrazioz kanpoko beste entitate bat da).

Honetan ere Euskal Herriko eskola eraketak badu berezitasunik Europako Batasunarekin alderatuz gero. Izan ere, bi estatuen sistemek ez diete erantzun herri bezala ditugun beharrei (aitzitik, haiek itotzen saiatu dira), eta horrek herri ekimen garrantzitsua eragin du, bai Hegoaldean, bai Iparraldean. Horren ondorioz, ikastetxeen eraketan, hiru eragile nagusi bereiz ditzakegu Euskal Herrian: estatuak, ekimen pribatua (Eliza eta beste batzuk), eta -Europan eman ez den- herri ekimena. Herri ekimenaren emaitza izan diren ikastetxeak ofizialki onartuta dauden bi sareetan kokatzen dira. Bestalde, EBko herrialde gehienetan sistema publikoa nagusitzen da, %90etik gorako proportzioan ia guztietan. Iparraldean sare publikoaren presentzia handiagoa da pribatuarena baino. Espainian hezkuntza sistemak izan duen garapenak, ordea, bestelako egoera bat eragin du Hegoaldean: ekimen pribatuaren esku (bereziki Eliza) utzi da umeen hezkuntzaren zama handi bat. Horrela, egun, ikasleen banaketa orekatua ematen da bi sareen artean; zenbakiak borobilduz, ikasleen %50 dago sare bakoitzean eskolatuta.

Oharrak:

Oharrak:

Sare ezberdinen arteko elkarlana beharrezkoa da, bakoitzaren izaera ezberdinetatik abiatuz, Euskal Eskola proiektuaren aldeko bidean indarrak batzeko. Alabaina, sare banaketak ondorio ezkorrak ditu euskal eskolaren eraikuntzan. Bi sareen arteko merkatu-lehia euskal eskolaren proiektu komuna aurrera eramateko oztopo bilakatu da. Are gehiago, egunerokotasunean sortzen diren hika-mikek, elkarlana eta elkar ulermena zaildu egiten dute, euskal eskola eta euskal hezkuntza sistemaren erronkak topaleku indartsu gabe uzteraino.

Euskal Herriak bere hezkuntza diseinatu eta arautzeko aukerarik ez.

Sarreran aipatu bezala, Estatuen hezkuntza sistemek beraien lege eta arauen arabera aritzera behartzen gaituzte. Honen adibide argia da azkeneko urteetan, hezkuntza sistemen berrantolaketaren testu inguruan indarrean jartzen ari diren lege ezberdinek Euskal Herrian duten eragina. Hegoaldeari dagokionean, Humanitateen dekretua, Lanbide Heziketen legea, LOCE eta LOUa dira hurbilenak. Euskal jendartearen gehiengoaren borondatearen kontra, lege horiek gure herrian ezartzen ari dira guk geuk euskal hezkuntza esparrua arautzeko eta diseinatzeko dugun aukera falta agerian utziz. Iparraldean berriz, edukiak egokiak diren edo ez eztabaidatu gabe, Hezkuntzarako deszentralizazio legea mahai gainean dago.

Beraz, edozein nazio normalizatuk duen hezkuntza garatzeko sistemaren osagaien jabe ez gara gurean: Euskal herritartasunean hezteko hezkuntzaren diseinua, irakasleria propioa, tresna pedagogiko propioak... Alor ezberdinetan aurrerapausoak eman baditugu, sektore ezberdinen borondatearen eta lanaren ondorioz izan da eta ez, hezkuntza sistemen aitortzarengatik. Hots, eskola esparruan eskuratu ditugun lorpenen motorea irakasleen, ikasleen, gurasoen eta ikastetxeen borondatea eta eguneroko lana izan dira.

Hezkuntza sistema eta euskalduntzea

Hezkuntza sistemak belaunaldi berriak euskalduntzeko tresna izan beharko lirateke, baina errealitateak bestelako argazki bat eskaintzen digu. Hizkuntza ereduetan oinarritutako politikek Hegoaldean eta frantziar estatuaren hezkuntza sistemak ezarritako euskararen aitortza ezak, belaunaldi berrien euskalduntzea eragotzi edo ukatu egiten dute.

MATRIKULAZIOAK

Eredua	Ikasleak	%
X/G (euskararik ez)	90.085	20,8
A (erdaraz, euskara ikasgai)	116.623	26,9
B (ele bitan)	71.660	16,5
D (euskaraz)	155.117	35,8

Datu orokorrek, ordea, errealitate konplexua ezkutatzen dute:

Alde handiak daude lurralde batetik bestera. Adibidez, Gipuzkoako ikasle ez unibertsitarioen %61 D ereduan dago, %14 A ereduan, eta X/G eredurik ez dago; horren

aldean, Iparraldekoen %4 dago D ereduan, eta %78 X ereduan. Beraz, euskarak nolabaiteko aitorpen ofiziala duen lurraldeetan euskarazko hezkuntza askoz zabalduago dago.

Alde handiak daude ikasketa mailen arabera, halaber. Horrela, Lehen mailako Hezkuntzan Euskal Herriko umeen %43 D ereduan ari dira, eta %18 X/G ereduan; baina Bigarren Mailako Hezkuntza II (hots, Lanbide Heziketa, Batxilergoa, UBI), %21 dira D ereduan, eta %26 X/G ereduan. Ikasketa mailan gora joan ahala, beraz, euskararen presentzia apaldu egiten da nabarmen.

Egindako ikerketa guztiek ondorio bat azpimarratzen dute: egun ezarrita dauden hizkuntza ereduen artean, elebitasun orekatua bermatzen duen eredu bakarra D eredua da. Gainontzeko hizkuntza ereduek ez dute elebitasuna bermatzen. Belaunaldi berrien gehiengoak beren bizitzako esparru ezberdinetan euskaraz bizitzeko gaitasun eza bultzatzen dute hizkuntza ereduen politikek. Hizkuntza ereduak gaindituta daude egun; D ereduak ere ez du kasu guztietan bermatzen elebitasun funtzionala, beste gauza batzuen artean, eskolak bakarrik ezin duelako hori bermatu. Ereduen berrikuspena eta eskolaren ekarpenarekin batera, ingurune bakoitzaren egoera soziolinguistikoaren arabera normalizazio planak abiatu behar dira eskolaren ahaleginak fruitu iraunkorrak eman ditzan. Diogunaren froga nabaria da euskararen erabilera urriak eta gaitasun mailak kezkatuta hainbat ikastetxetan programa ez ofizial osagarriak ari direla aplikatzen. Eskolaren ahalegina, jendarte eragileen ahalegina, norbanakoena eta instituzioena batzetik eta horiek denak Plangintza Estrategiko baten koordinatzetik etorriko zaigu konponbidea baina, bitartean, eskolak ezintasunez bizi du euskalduntze prozesua.

Lehenago esana dugunez, garrantzi handikoa izan da herri ekimena euskal hezkuntzaren garapenean. Aipagarria da ikastolen mugimendua, ez bakarrik euskara eskolara sartzea lortu zuelako, eredu pedagogikoetan ere ekarpen handiak eman zituelako baizik. Ikastolen Mugimenduarekin batera, ezin aipatu gabe utzi Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko mugimendua, UEU, Ikasleen mugimenduak, Hik Hasi, EHIGE... Izan ere, bakoitzak bere aldetik eta dagokion esparrutik ekarpen interesgarri eta funtsezko asko egin dute eta egiten ari dira Hezkuntza Sistemaren eraikuntzaren bidean. Jendarte baten biziraupena eta garapena belaunaldi berrien heziketan datza, beraz Hezkuntza ez da neutroa eta horretan oharturik herri mugimenduak eraikitzen eta sortzen jakin du. Honen inguruan, ordea, badira arazo ugari. Besteak beste, herri ekimenetik etorritako mugimenduaren eta administrazioen arteko harreman problematikoa, lurraldez lurralde tankera ezberdinak hartzen dituena. Zeregin horretan Instituzioak kasurik hoberenean herri ekimenaren babesleak edota bidaideak izan dira, beste batzuetan, ordea, oztopoa, baina, inoiz ere ez, prozesuaren sustatzaileak.

Euskalduntzeaz eta Hezkuntza sistemaz ari garela ezin aipatu gabe utzi Helduen Euskalduntze Alfabetatzea. Helduak euskalduntzeko egiturek krisi larria pairatzen dute. Eskola sistemaren lehen mailetan jarritako interesa helduen euskalduntze eta alfabetatzearekiko axolagabekeria bihurtu da.

Oharrak:

Oharrak:

Euskal Herriko euskaltegien gain egonda helduenganako motibazioa sortzeko erantzukizuna eta helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko beharrezkoa den tresneria didaktikoa eta antolaketa garatzeko ardura gehiegizko zama jarri dugu sektorean. Administrazioaren, lan munduaren, komunikabideen... finean jendarteko eta eguneroko bizitzaren atal nagusiak euskalduntzeko egin diren saio eskasek helduen euskalduntzea krisi larrian jarri dute, euskararen berreskurapenaren prozesuan estrategikoa den azpiegitura kolokan jarriz.

Euskal Herriaren beharretara egokitutako curriculum eza

Eskola sistemaz gain, eskolako curriculumaren auzia ere nabaria da. Arlo honetan herri ekimenak ekarpen handiak egin dituen arren, oraindik ere pisuak dira Euskal Herriaren ikuspuntutik eta euskal jendartearen ikuspuntutik beharrezkoa litzatekeen curriculuma garatu ahal izateko oztopoak. Horietatik asko legalak (Frantziako eta Espainiako estatuek beren mugak ezartzen baitituzte), eta beste batzuk politikoak (Nafarroako Gobernuak daraman politika etnozida kasu).

Curriculumaren bitartez, ukatu egiten zaigu gure belaunaldi berriak prestatzeko eskubidea eta pertsonen garapenean funtsezkoak diren ezaupideak eta langaiak garatzeko aukerarik ez dugunez espainiar eta frantses politika kultural homogeneizatzaileen menpe bizi gara. Euskal Herriari eta munduari buruzko ezagutza ezin dugu garatu gure ikuspegiz, zer, nola eta zertarako irakatsi eta ikasi ezarri egiten zaigu, landu beharreko baloreak (begirunea, elkartasuna, kritikotasuna, sormena, aniztasuna...) beren esku daude, eredu pedagogikoa, kudeaketa, eskumenak... gai horiek denak gure askatasunetik landu eta jorratu beharko genituzke eta ez da hori gertatzen ari.

Euskal herritarron beharren araberako curriculuma ez egonik ere, esparru ezberdinetan ibiltzen hasiak gara bitarteko propioak ekoiztuz (testu liburugintzan, arlo pedagogikoari loturikoak...). Hau da, azken urteetan curriculum ofizialei buelta eman nahirik tresna ezberdinak sortu dira. Baina tamalez, oraingoz, ez dira nahikoak. Zein da euskal gazte batek ezagutu eta ikasia izan beharko lukeena eskolatik irtetean? Horixe da, balizko euskal curriculum diseinatu eta arautu batek jaso beharko lukeena eta gaur egun ez daukaguna. Euskal Herrian erabiltzen diren curriculumek gure herritik kanpo eta beste interes batzuen arabera formulatutako galderei erantzuten baitiete.

Unibertsitatea

Euskal Herrian izaera juridiko ezberdinetako unibertsitate ugari dago: UPNA, UPV, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko unibertsitatea, OPUSen unibertsitatea, UNED eta Paueko unibertsitatearen menpekoak diren Baionako fakultateak. Kantitatez asko izanik ere, hauetako bat bera ere ez dago gure herriaren behar sozial, kultural, linguistiko edota ekonomikoen arabera eraikita. Are gehiago, bi Estatuek gure herrian dituzten behar eta interesei erantzuna emateko sortutako unibertsitateak dira eta, zuzenki, Madril eta Pariseko botere guneei hertsiki loturik daude. Hegoaldeari dagokionean, LOUak Euskal Herrian dauden unibertsitateek Madrilekiko zuten menpekotasuna areagotzea besterik ez du

egin eta Iparraldean, unibertsitatearen aldeko eskari sozial handiari muzin egin zaio berriro ere, ikasleen Frantziarako exodoa bultzatuz. Beraz, Euskal Herriak ez dauka unibertsitate propiorik, estatuen interesen arabera sortutako unibertsitate esparru zatikatua baizik. Ondorioz, unibertsitate horiek ez dute euskaraz ikasi eta bizitzeko eskubidea bermatzen nahiz eta eskubide honen ukapen maila tokian toki ezberdina dela esan; ez da gure herriari loturiko ikerketa lan nahikorik ekoizten, ez behintzat beharrezko mailan; irakasleria estatuetako funtzionaritza legeekin estutzen dute; Euskal Herrian erabaki eta onartuak izan ez diren curriculumak ezartzen dira...

Unibertsitateek eskaintzen diguten argazki honi, Europako unibertsitateen konbergentziarako planek izango duten tokia gehitu behar zaio. Bologna prozesuaren baitan, Europako goi hezkuntza esparrua irizpide komun eta homogeneizatzaileen arabera antolatzeko neurriak hartzen ari dira jada eta, zentzu honetan, LOUa bera Estatu espainiarrak prozesu honen aplikaziorako egindako legea dela aipatu beharko litzateke.

Lehenagoko ikasmailetan, herri ekimenen eta mugimenduen inguruan egindako hausnarketak unibertsitate esparruan ez dute islarik izan. Hau da, eskola proiektu euskaldunen inguruan lan egiten duten herri mugimenduek unibertsitate arloan eten egiten dira, oraingoz. Hala ere, gure herrian unibertsitate propio baten aldeko bidean ibiltzen hasteko nahikoa baldintza badaude: gaitasun kultural eta ekonomikoa, ikasle masa potentziala...

Ondorioz, existitzen diren egitura unibertsitarioetan nazio ikuspegitik eraikitako politikek tokia hartu behar dute eta halaber, euskal herritarrok egitura unibertsitario berri bat eraikitzeko bideari ekin behar diogu, herri ekimenaren bitartez osoki euskarazkoa eta nazionala izango litzatekeena.

Ondorioak

Euskal Herrian Hezkuntza sistema propio baten gabezia pairatzen ari gara oraindik ere, izan ere, Hezkuntza sistema definitzen duten ezaugarri nagusiak Estatu espainiar eta frantsesaren eskuduntza izaten segitzen baitute. Oso kontuan hartzekoa da Estatu espainiarrak estrategia oso bat duela, epeka aplikatzen duena. Horren azken adibideak honako hauek dira: Humanitateen Dekretua delakoa, liburuen edukietan eragiten duena, LFP, LOCE, eskoletako funtzionamenduan, eredu pedagogikoan eta curriculumean eragiteko pentsatua, eredu hierarkikoa, baztertzailea eta pentsamendu bakarraren bultzatzailea ezarriz, LOU etab. Den denek Hezkuntza Sistema goitik behera uniformizatzea dute helburu. Esan liteke, gurea legez, funtzionamenduz eta edukiz eskola espainola eta frantsesa direla eta horren ondorioz, Euskal Herriko lurralde bakar batek ere ezin duela gure herriko biztanleen nahiaren eta borondatearen arabera Hezkuntza Sistema garatu. Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Sistema propioa eraikitzeko bidean hainbat urrats eman ditugu, gehienak herri mugimenduari esker.

Oharrak:

Oharrak:

Herri mugimendua bizia, sortzailea, kementsua eta egonarri handikoa izan da. Bere fruiturik deigarrienak Ikastolen mugimendua, UEU, euskal ikasleen mugimenduak, Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko mugimendua, Hik Hasi, EHIGE... Gaur egun, oraindik ere, herri mugimenduak ezaugarri nagusiak mantentzen ditu baina, prozesuaren luzeak, jartzen zaizkion oztopoak eta horien bien eraginez sortutako nekeak zertxobait ahuldu egin dute eta ezinbestekoa da erronka eta proiektu berriei baldintza egokiak eskaintzea herri mugimendua indarrez lora dadin.

Hizkuntza

Euskarak egin gaitu Euskal Herri historian zehar, eta euskarak egiten gaitu euskaldun gaur egun ere. Aurrera begira ere, euskarak egingo gaitu herri, kontuan hartzen badugu nazioa eraikitzeko orain arte lehen mailakoak izan diren osagai batzuk indarra galtzen ari direla gaur egun. Besteak beste, estatu sendo batetik etorritako naziotasuna berebiziko nortasun iturria izan da XX. mendean zehar; baina egungo Europan hori aldatzen ari da. Kultura ezberdina edukitzea ere izan da herrien bereizgarri eta nortasun emaile, baina gaur egun zaila da kultur sistema itxietan pentsatzea, eta nahasketarekin batera nolabaiteko homogeneizatzea gertatzen ari da. Gauzak honela, zerk eman ahal digu herri izaera etorkizunean, hizkuntzak berak ez bada? Euskarak, gainera, gure historiarekin, gure oroimenarekin eta gure kultur ondarearekin bat egitea ahalbidetzen digu. Horregatik, “euskararik gabe ez dago Euskal Herririk” dioen leloa inoiz baino egiagoa da orain.

Egoera juridiko ezberdinak

Euskarak bost egoera juridiko ezberdin ditu Euskal Herrian bertan. EAEn ofiziala da, gaztelerarekin batera. Nafarroa Garaian hiru egoera ezberdinetan dago, eremu geografikoaren arabera (Eremu Euskalduna, Eremu Mistoa, Eremu Ez-Euskalduna), eta Iparraldeko herrialdeetan ez du inolako ezagupen ofizialik (Trebiñu eta Turtziosen bezala). Gogoratu beharra dago, bestalde, ofiziala den tokietan ere gazteleraren mende dagoela. Izan ere, Espainiako Konstituzioak euskarari eskubide izaera ematen dion bitartean, gaztelerari betebehar izaera ematen baitio.

Estatus ezberdinduek, bestalde, hizkuntza politika bateratua ezinezko bihurtzeaz gain, oso joera ezberdinak sortarazten dituzte euskararen bilakaerari dagokionez.

Ezagutzaren egoera eta bilakaera

Gure garaiko jendarteek bizi duten aldaketa erritmo eta indarren erakusle argia dugu, bestalde, hizkuntza. Mende askotan zehar hizkuntz komunitate handi ezberdinen presioari aurre eginez etorri da euskara orain arte. Gaur egun, ordea, euskararen galera inoiz baino azkarragoa da, eta zenbait lurraldetan (Iparraldean esaterako) pare bat belaunaldiko kontua izan daiteke, azken hamarkadetako joerek bere horretan iraunez gero.

Izan ere, inoiz baino argiago dago, gaur egun, euskara biziko bada botere politikoa behar duela bere atzean. Horixe erakusten digute euskararen egoeraren azterketa eta hausnarketa guztiek. Beste egoera batzuetatik ikasi dugu, ikasi, botere politikoa ez dela nahikoa hizkuntzaren normaltasuna bermatzeko (Irlanda, kasu); baina ezinbesteko osagaia da.

Euskarari Euskal Herriko lurralde ezberdinetan ematen zaizkion estatus juridiko ezberdinek oso joera ezberdinak sortu dituzte bere bilakaeran.

Oharrak:

EUSKAL HERRIKO 15 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN SAILKAPENA

	Euskal Herria			EAE			Nafarroa Garaia			Iparraldea		
	2001	1991	aldea	2001	1991	aldea	2001	1991	aldea	2001	1991	aldea
lebidunak	25,4	22,3	3,1	29,4	24,1	5,3	10,3	9,5	0,8	24,7	33,1	- 8,4
Euskal elebidunak	7,1	7,7	- 0,6	8,3	8,5	- 0,2	3,5	3,9	- 0,4	5,3	8,4	- 3,1
Elebidun orekatuak	7,1	6,2	0,9	7,9	6,1	1,8	3,1	2,5	0,6	9,2	13,9	- 4,7
Erdal elebidunak	11,2	8,4	2,8	13,2	9,4	3,8	3,7	3,1	0,6	10,1	10,7	- 0,6
lebidun hartzaileak	10,6	7,7	2,9	11,4	8,5	2,9	6,6	4,6	2,0	11,9	7,1	4,8
rdaldun elebakarrak	64,1	70	- 5,9	59,2	67,4	- 8,2	83,1	85,9	- 2,8	63,4	59,8	3,6

turria: Soziolinguistikako Inkesta)

Oro har, Euskal Herriko biztanleen laurdenak (%25,4) elebidunak dira, eta beste %10,6 elebidun hartzaileak, beti ere 15 urtetik gorakoen artean. Banaketa, ordea, oso ezberdina da herrialde batetik bestera. Orotara, beraz, populazio honen barruan 634.000 lagun dira euskaraz mintzatzeko gai, eta beste 263.000 lagunek ulertu egiten dute euskara, nahiz eta egiteko gai ez diren. Beste 1.600.000 lagunek (hiru euskal herritarretik bik) ulertu ere ez dute egiten.

Lehenago esan dugunez, ofizialtasunarekiko estatus ezberdinduen ondorioz joera ezberdinak garatu dira lurralde ezberdinetan. Horrela, EAEn gora egin du euskararen ezaguerak azken hamar urtean, populazioaren %5,3 euskaldunentzat, eta beste %2,9 elebidun hartzaileentzat irabaziz. Honekin, iraulí egin da XX. mendean zehar nagusi izan den beheranzko joera. Nafarroa Garaian berriz beheranzko joera gelditu egin dela dirudi, baina irabaziak oso txikiak dira. Iparraldeko herrialdeetan, berriz, galera nabarmena dago, azken hamar urtean elebidunen kopuruak nabarmen behera egin baitu (populazioaren %8,4 edo, bestela esanda, elebidunen laurdena).

Badirudi, beraz, euskara ofiziala izatea garrantzitsua izan dela, gutxienez, galera prozesuak geldiarazteko, eta ezagueraren goranzko joerak eragiteko. Beste kontu bat da ezaguera berreskuratzeko erritmoen eta abiadaren inguruko eztabaida (alegia, zenbat denbora beharko litzatekeen erritmo honetan Euskal Herria euskalduntzeko, eta ea denbora hori planteagarria ote den). Belaunaldi berriei euskara bermatzearen aldetik, eskola eredu ezberdinak eta legedi ezberdinak tarteko, helburua betetzetik oso urrun gaude. Egun, milaka dira euskaldundu gabe, eremu administratibo eta herrialde guztietan eskola garaia amaitzen duten haur eta gazteak. Eta urteroko matrikulazio datuek eta eskola ereduek euskara normaltze bidean jartzeko erakutsi duten ezintasunak errealitate berdina eraikitzen jarraitzen dute.

Oharrak:

Helduak euskalduntzeko egiturek krisi larria pairatzen dute. Eskola sistemaren lehen mailetan jarritako interesa helduen euskalduntze eta alfabetatzearekiko axolagabekeria bihurtu da. Euskal Herriko euskaltegien gain egonda helduenganako motibazioa sortzeko erantzukizuna eta helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko beharrezkoa den tresneria didaktikoa eta antolaketa garatzeko ardura.

Administrazioaren, lan munduaren, komunikabideen... finean jendarteko eta eguneroko bizitzaren atal nagusiak euskalduntzeko egin diren saio eskasek helduen euskalduntzea krisi larrian ezarri dute, euskararen berreskurapen prozesua estrategikoa den azpiegitura kolokan jarriaz.

Erabilera

Hizkuntza baten bizitzan, zenbat hiztun diren baino are garrantzitsuagoa da jendarteko zein funtzio eta eremutan erabiltzen den jakitea. Eta hemen agertzen dira nabarmenen ofizialtasunak izan dituen hutsuneak. Izan ere, ezaguerak gora egin arren (bereziki euskara koofiziala den eremuetan), irabazi diren elebidun gehienek hobeto egiten dute erdaraz euskaraz baino, eta gehiago erabiltzen dute erdara euskara baino. Euskararen erabilerari buruzko azterketek agerian uzten dute erabilera ez datorrela bat ezagueraren hazkundearekin. Hortaz, kasurik hoberenean (euskararen ezaguera gora doan lurraldeetan alegia), nominalki euskaldunen kopuruak handituz baina erabileraren galerari aurre egin ezinik egon gintezke. Adibide bat: EAEko gazteen artean (16 urtetik 24ra bitarte) %70k ulertu egiten omen du euskara; baina sektore honetan hizkuntza giroa gazteleraren oso aldekoa da. Diglosiaren prozesuak, hartara, bere horretan dirauela dirudi.

Euskararen berreskurapenaren aldeko zenbait eragileren arabera, hutsune honek zerikusi zuzena du EAEko administrazio autonomikoak euskararen normalkuntza prozesuan zutabe nagusitzat umeen euskalduntzea hartu izanarekin. Honekin ezaguera handitzea lortu dela bistan da, baina euskaldundutako horiek ez dira erabiltzaileen komunitatean integratu. Eskolan euskara ikastetik jendarteko arlo ezberdinetan erabiltzerako urratsak eman gabe gelditu dira kasu askotan. Arazoetako batzuk aipatzearren, honakoak ekar genitzake gogora: eskola sistemaren lehenengo mailak euskalduntzeko ahalegin handiak egin diren arren, maila gorenetan hutsune nabarmenak egon dira (lanbide hezkuntzan eta unibertsitatean, kasu), euskara maila baterainoko hizkuntza bihurtu delarik; euskarazko telebistak haurrak erakartzeari begiratu dio, beste sektore batzuk ahaztuta; kultura eta komunikazioen merkatuan euskarak duen presentzia txikia; lan munduko normalkuntzan behar baino gutxiago aurreratu da; euskarak ez du behar bezala aurrera egin jendarteko ospeari dagokionez; hamarkadetan zehar euskalgintzako sektore ezberdinen eta administrazioaren artean egon diren mesfidantza handiek galarazi egin dute herri ekimenaren eta erakunde publikoen lanaren arteko sinergiak garatzea (helduen euskalduntze eta alfabetatzearen kasua, euskal prentsarena, eta beste gatazka ugari aipa genitzake hemen). Arazo hauek ez diote laguntzen, inondik inora, eskolak euskalduntzen dituen euskaldun berrien integrazioari.

Euskararen erabilera horretarako dauden aukerekin

alderatu behar da. Euskaldunok, gaur egun ezartzen zaigun errealitate erdaldun batekin egiten dugu topo. Aipagarria da Euskal Herrian osasun zerbitzuak euskalduntzeko saiorik egin ez izana. Administrazioek azken hogeita bost urteotan sortutako zerbitzuek (Osakidetza, Osasunbidea) ez dute euskararen ezagutza eta erabilera normaltzeko inolako saiorik egin. Justizia arloan ere, euskarak ez du lekurik, gainera aplikatu diren plangintzek lortutako emaitzak eskasak izan dira oso. Oro har, esan daiteke, euskaldunon hizkuntz eskubideak Euskal Herri osoan, sistematikoki eta Administrazio guztietan, baita hizkuntza ofiziala denetan ere, urratzen direla eta horrek zuzen-zuzenean eragiten du erabiltzeko aukeretan eta ondorioz, herritarrek euskararen arlo praktikoaz duten pentsamoldean.

Bide beretik aztertu behar dugu lan mundua euskalduntzeko egin den ahalegin txikia. Izan ere, jarduera ekonomiko eta sozialak herritarren eguneroko portaera baldintzatu dute. Lan munduaren euskalduntzea estrategikoa da, eskola, administrazioa eta hedabideak euskalduntzea estrategikoak diren bezalaxe eta horietan aurrerapausoak ez emateak euskaraz bizitzeko erabakia erabat ezinezko bihurtzen du. Gainera, oraindik ere, Euskal Herriko leku askotako herritar eta instituzioen aldetik euskara erabiltzeak mesprezuzko jarrerak sortzen ditu euskararen erabilpen librea eragotziz eta erabilpen hutsa jarrera militante bihurtuz.

Jendarteko jarrerak

Jendartearen jarrerei dagokienez, joera kontrajarriak nabarmentzen dira. Batetik, euskararen normalizazioaren alde lan egiten duen herri mugimenduaren garrantzia aipatu beharra dago. Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen inguruan edota euskarazko prentsa, argitalgintza eta musikagintzaren inguruan eginikoak, beste ekimen ugarirekin batera, indar eta ahalmen handien erakusleak izan dira. Bestetik, euskal jendartearen zati handi bat euskara hiltzera kondenaturik zegoen hizkuntza zela pentsatzetik etorkizunik baduela pentsatzera igaro dela dirudi, haurrentzat aukeratzen diren eskoletako hizkuntza ereduen bilakaerak ikusirik: eskolaeredu euskaldunak gorantz doaz, ez bakarrik euskara ofiziala den tokietan, baita inolako ofizialtasunik ez dutenetan ere (nahiz eta hauetan hazkundearen erritmoa motelagoa den). Nafarroa Garaian eta Iparraldean eredu hauek gora egiteak, gainera, zera iradokitzen du: fenomeno honen atzean elebitasunaren alderdi pragmatikoa baino gehiago egon daitekeela. Maila orokorrean, elebitasunak eta hizkuntzaniztasunak jendartean irabazi duten balioa; maila konkretuan, herri kontzientziaren sendotzea.

Euskararen aldeko jendartearen jarrera hauekin batera, ordea, aurkako jarrerak ere azaleratu dira, bereziki azken urteetan. Gatazka politikoaren ondorioz, lehendik zetozen baina jendarteko eztabaidatik at zeuden euskararen aurkako jarrerek ezkutalekua utzi eta jendaurrean plazaratzen dira gaur egun, gure hizkuntza ezbai politikoaren erdigunean kokatuz. Honetan eragin handia izan du, zalantzarik gabe, Estatu frantses eta espainolak izandako jarrera erasokorrak, bereziki azkenarenak. Jarrera honek sendotu egin du, jendaurrean, euskararen aurkako diskurtsoa, eta ezkutatu gabeko

Oharrak:

Oharrak:

politika etnozidei zilegitasun soziala eman (Nafarroa Garaiko kasuan bezalaxe).

Ingelesaren auzia

Azkenik, euskararen orainaz eta etorkizunaz gogoeta egitean, ezin alde batera utzi munduan garatzen eta nagusitzen ari diren hizkuntza joerek euskaldunoi planteatzen dizkiguten erronkak. Ingelesa nazioarteko lingua franca edo hizkuntza globala bihurtzen ari da oso erritmo azkarrean: munduan ingelesez dakitenak 1.500 milioi dira jadanik (populazioaren laurdena), nahiz eta ama hizkuntzatzat 400 milioik bakarrik duten. Ingelesak euskal herritarren bizitzan zein leku hartuko duen, zaila da jakiten oraindik. Baina zalantzarik ez dago, bere hedapenak hirugarren lehiakide bat ekarri duela funtzio sozialak konkistatzearren orain arte euskarak gaztelera/frantsesarekin izan duen lehiara. Ingelesak azken hauei edota euskarari ere funtzioak irabaziko ote dizkion ez dakigu. Baina lehiakide gisa gero eta presenteago dago.

nazio
eztabaida
gunea